**MAIATZAREN LEHENA 2018** **#PobreziariGerra**

# POBREZIARI GERRA!

## Aquí no sobra nadie Soberan inor ez

Este Primero de Mayo es una gran oportunidad para reforzar la marea de reivindicaciones sociales encabezadas por el feminismo (8-M) y las personas pensionistas. El reto que tenemos no es pequeño. No hay que olvidar que la crisis y las decisiones políticas han reforzado la tiranía del miedo. La gente es cada vez más temerosa. Vivimos en la sociedad más segura de la historia, pero nunca hemos tenido tanto miedo. Nos han inoculado el miedo a conciencia, la percepción angustiosa de que nos puede pasar cualquier cosa. Basta con darse una vuelta por los noticiarios.

La crisis es un instrumento de dominación. El sistema nos crea supuestos enemigos/as dentro de nuestra propia clase, bien sean personas inmigrantes, refugiadas, perceptoras de prestaciones sociales… Cualquiera, con tal de que los/as responsables del saqueo salgan airosos. Euskal Herria no es una excepción en el repliegue conservador de la sociedad. Los gobiernos y las grandes corporaciones se esfuerzan para que sea así, y por eso debemos trabajar en dirección contraria para que la clase trabajadora no se sume a posiciones conservadoras y xenófobas. Si no lo evitamos, la extrema derecha habrá ganado la batalla. Esto es muy importante, y ELA ha decidido librar la batalla contra la pobreza y contra el miedo. Especialmente, contra esa estrategia de fabricar el miedo al otro, a esa persona que vive cerca y que quieren convertir en enemiga.
ELA lo subraya una vez más: aquí no sobra nadie.

Quieren embarcarnos en una guerra entre pobres: quienes tienen empleo contra quienes están en paro; temporales contra indefinidos; tiempo parcial-tiempo completo; sector público-privado; inmigrantes “con papeles” contra los/as “sin papeles”; quienes cobran prestaciones contra quienes no. Todo es parte de la política de división de la clase trabajadora. Pero en este Primero de Mayo, ELA recuerda: todos los derechos para todas las personas que viven aquí.

Somos muchas personas las que pensamos así. No vamos a mirar para otro lado.
Y sabemos por dónde empezar. Desde ya.
El trabajo es cada vez más precario y desigual, y aumentan los empleos con salarios miserables. Tener empleo ya no garantiza ingresos suficientes para una vida digna: cada vez hay más trabajadoras y trabajadores pobres.

Se perpetúa la discriminación de las mujeres, tanto laboral como en lo social (pensiones, desempleo, cuidados…). Se condena sin futuro a la mayoría de la juventud (desempleo, precariedad, sin acceso a vivienda…).
Los gobiernos recortan las pensiones y las prestaciones sociales.
Quieren pasar del estado del bienestar a uno de subsistencia. Ya lo adelantó el canciller alemán Gerhard Schroeder: “No es posible bajar los salarios sin bajar las prestaciones sociales”. Y eso que era socialdemócrata.

Las personas que necesitan esas prestaciones son como nosotros/as: trabajadores/as. Casi la mitad son pensionistas (un 25% del total) o asalariados/as (otro 20%). Y va en aumento. Y de todas las personas que acceden a las rentas de garantía de ingresos, el 57% son mujeres.

Este Primero de Mayo, la prioridad de ELA es la batalla contra la pobreza -en el trabajo remunerado y fuera de él- y contra el miedo al otro, y la Iniciativa Legislativa Popular puesta en marcha con la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria es una herramienta imprescindible para empezar a ganar esa lucha.

Pobrezia ekonomikoa - Dificultades financieras - Dependencia de prestaciones sociales - Babes sozialik eza - Desempleo - Prekarietatea - No escolarización - Eskolatze eza - Analfabetismo o bajo nivel formativo - Eskola-porrota - Barrera lingüística - Oinarrizko osasun baliabideetarako sarbide eza - Adicciones - Enfermedades infecciosas - Desgaitasunak - Dependencia - Sin techo - Etxegabea - Acceso precario a la vivienda - Infravivienda - Etxebizitza prekarioa - Espacio urbano degradado - Bakardadea - Aislamiento social - Marjinazioa - Estigmatización social - No acceso a la ciudadanía - Pobrezia energetikoa

**IRUÑEAN**
**PLAZA DE LA CRUZ**
**GURUTZE ENPARANTZA** **12:00**

**BILBON**
**SAGRADO CORAZON**
**JESUSEN BIHOTZA** **11:45**

**ELA**
**EUSKAL SINDIKATUA**

MAIATZAREN LEHENA 2018 #PobreziariGerra

# POBREZIARI GERRA!

## Aquí no sobra nadie Soberan inor ez

Aurtengo Maiatzaren Lehena aukera bikaina da feminismoak (M-8) eta pentsiodunek kalera eraman duten erreibindikazio oldea indartzeko. Parean daukagun erronka ez da nolanahikoa.
Ezin ahaztu krisiak eta erabaki politikoek beldurraren tirania areagotu egin dutela. Jendeak gero eta beldur handiagoa du. Inoiz izan den jendarterik seguruenean bizi arren, sekula ez gara gaur adina larritu. Barruraino eragin digute ikara, edozer gerta daitekeelako uste izugarria. Aski da albistegiak ikustea.

Krisia menperatzeko tresna da. Sistemak ustezko etsaiak gure klasearen baitan sortzen dizkigu: immigranteak, errefuxiatuak, gizarte-prestazioak jasotzen dituztenak... Edozein, harrapaketa nagusiaren egileak nortzuk diren ahazteko bada. Mundu guztian jendartea atzerakada kontserbadore batean murgildu da, eta Euskal Herria ez da salbuespena. Horretan saiatzen dira gobernuak eta korporazio handiak, eta, horregatik, kontrako lana egin behar dugu, langile-klaseak ez dezan jo posizio kontserbadore eta xenofoboetara. Hau gertatuko balitz eskuin muturraren garaipena litzateke. Hau garrantzia handiko kontua da, eta ELAk erabaki du borrokatu egingo dituela pobrezia eta beldurra. Batik bat bestearenganako beldurra, hurrean bizi den eta etsai bihurtu nahi diguten horrenganako beldurra pizteko estrategia hori dugu jopuntuan. ELAk behin eta berriz ozen esango du: Hemen inor ez da soberan.

Pobreen arteko gerra piztu nahi dute: enplegua dutenak langabezian daudenen aurka; aldi baterako kontratua dutenak finkoen aurka; lanaldi partziala-lanaldi osoa; arlo publikoa-arlo pribatua; “paperak” dituzten migranteak eta ez dituztenak; prestazioak jasotzen dituztenak eta eskubiderik ez dutenak... Hau guztia langile-klasea zatikatzeko politikan sartzen da. Horregatik, Maiatzaren Lehena dela eta ELAk mezua gogoratu nahi du: Eskubide guztiak, berton bizi diren guztientzat.

Asko gara hori pentsatzen dugunok. Ez gara beste aldera begira jarriko. Eta badakigu zeri ekin. Oraintxe bertan hasita.
Lana gero eta prekarioagoa da, eta desberdintasuna areagotzen ari da; ugaltzen ari dira jornal negargarriak dituzten enpleguak. Honez gero lana ez da beti bizimodu duina izateko bermea: gero eta langile txiro gehiago dago.

Emakumeek pairatzen duten diskriminazioa ez da amaitzen, ez lan arloan, ezta eremu sozialean ere (pentsioak, langabezia, zaintza...). Gazte gehienak etorkizunik ez izatera zigortzen dituzte (langabezia, prekarietatea, etxebizitzarik izateko aukerarik ez...). Gobernuek pentsioak eta gizarte-prestazioak jaisten dituzte.
Ongizate estatua zena subsistentzia-estatu bilakatu nahi dute. Gerhard Schroeder kantziler alemanak azaldu zuen bere garaian: “Soldatak jaistea ezinezkoa da gizarte-prestazioak murriztu gabe”. Eskerrak sozialdemokrata zen...

Prestazio horiek behar dituztenak gu bezalakoxeak dira: langileak. Ia erdiak pentsiodunak (%25) edota soldatapeko langileak (%20) dira; gero eta gehiago, gainera. Eta diru-sarrerak bermatzeko errentak jasotzen dituztenen %57 emakumeak dira.

Aurtengo Maiatzaren Lehenez ELAren lehentasuna pobreziaren aurkako borroka da -lan ordainduan eta hortik kanpo-, baita bestearenganako beldurrari aurre egitea ere. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartarekin batera bultzatzen ari garen Herri Ekimen Legegilea ezinbesteko tresna dugu borroka hori irabazten hasteko.

Pobrezia ekonomikoa - Dificultades financieras - Dependencia de prestaciones sociales - Babes sozialik eza - Desempleo - Prekarietatea - No escolarización - Eskolatze eza - Analfabetismo o bajo nivel formativo - Eskola-porrota - Barrera lingüística - Oinarrizko osasun baliabideetarako sarbide eza - Adicciones - Enfermedades infecciosas - Desgaitasunak - Dependencia - Sin techo - Etxegabea - Acceso precario a la vivienda - Infravivienda - Etxebizitza prekarioa - Espacio urbano degradado - Bakardadea - Aislamiento social - Marjinazioa - Estigmatización social - No acceso a la ciudadanía - Pobrezia energetikoa

**IRUÑEAN**
PLAZA DE LA CRUZ
GURUTZE ENPARANTZA **12:00**

**BILBON**
SAGRADO CORAZON
JESUSEN BIHOTZA **11:45**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA